

Erranaldi xüxenak

Ces vacances tombent bien.

Bakantza horik ontsa agitzen dira ; ez "ontsa erorten" dira

La (période de la) chasse est ouverte.

Ihizteka zabalik da ; -ka ürrentzea da xiberotarrez xüxen dena, ez -keta : onddoka, lehiaka, lasterka, bortüka, axurka, bedaka...

Je vais chasser/à la chasse

Banoa ihiztekara ; -ra ürrentze horrek egintza bat markatzen dü, hots zerbaitetara joaitea

Je me suis rendu compte de mon erreur.

Ene hütsegiteaz ohartü niz ; ohartü da "s'apercevoir", "se rendre compte", "noter" ; "ohart emak" = note bien que...

Je ne me suis pas souvenu de son anniversaire.

Haren urtebürüaz ez niz oritü ; oritü da "se rappeler", "ohartü"-rekila üsü nahasten dena

Je ne connais rien sur les (au sujet des) mascarades.

Maskaradetzaz deüs ez dakit ; - tzaz, -taz... bena ez ihontik-iholaz ere "gainen"

Les autres jours de la semaine.

Asteko beste egünak ; eta ez "beste asteko egünak", horrek erran nahi beilüke "les jours de l'autre semaine"

Les produits de la ferme.

Etxalteko mozkinak ; "mozkina" da, ontsalaz, "un produit alimentaire" ; beste zentzū batetan, "irabazia" ere erran nahi dū: lanaren mozkina

La production d'espadrilles.

Espartiña ekoizpena ; ekoizpen da "tout type de production" ; ekoizkina da "le produit"

Je te prête mon appareil photo.

Ene argazki tresna perestatzen deiat ; perestatü da "prêter"

Je vais tout préparer.

Dena prestatüren düt ; prestatü da "préparer"

Je m'endors facilement.

Aisa lokartzen niz ; eta ez ihontik-iholaz ere "lotzen niz" !

Je me suis attelé à la tâche/au travail.

Lanari lotü niz ; lotü da "s'atteler à quelque chose"

Je l'ai rencontré au marché.

Merkatüan partü/baratü/kürützatü düt ; eta ez geroago eta haboro entzüten den "errekontratü".

Je vais écouter l'émission de radio de demain.

Biharko irrati emankizüna behatüko düt ; -kizün ürrentzeak markatzen dü zerbait agitzekoa/jitekoa dena

J'ai participé à l'émission de radio d'hier soir.

Atzoko irrati emanaldian parte hartü düt ; -aldi ürrentzeak markatzen dü agitü den zerbait, bena agitzekoa den zerbaitentako ere baliatzen ahal da

Izenideak (sinonimak) üztart

Ehi = Aisa

Elestaldi = Kumersa

Ülün = Goibel

Idor = Txükü

Oihan = Xara ; bada ere: Xare, Baso, Berro, Olo, Holli...

Bürüngürü = Xoro

Argi = Distirant

Usuki = Gliska

Zurratü = Zaflatü

Iñazi = Ximist

Moztū = Ebaki

Garaitū = Goitū

Ühülgü = Dündä ; "Dündü'" da, aldiz, "le temps couvert", bedakako hon ez dena

Harpe = Karbe

Ospe = Fama

Bedezi = Atxeter

Intziri = Zinkuri

Destorbü = Meskabü

Xahatü = Üküzi

Zakü = Zorro